

IRUÑEKO UDALTZAINGOAREN ORDAINSARIEN ERREGELAMENDUA

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legeak Nafarroako tokiko polizien araubidea erregulatzea du xede, besteak beste. Horrela, legearen tituluetan kontuan hartu beharreko hainbat alderdi jasotzen dira Nafarroako poliziei dagokienez, hala nola egitura organikoa, Nafarroako polizien arteko harremanak, Nafarroako Foruzaingoari eta arlo horretako organo aholku-emaileei buruzko guztia, Nafarroako tokiko poliziak, eremu polizialean lanpostuak hautatzea, betetzea eta horietara sartzea, ordainsariak, eskubideak, betebeharrak eta diziplina-araubidea.

Foru lege horrek geroko erregelamendu bidezko garapenerako oinarriak ezarri ditu, eta garapen horrek zehaztu ditu Nafarroako poliziei aipatutako eremu horietan eragiten dieten alderdi guztiak. Arauaren garapen hori, Iruñeko Udaltzaingoari dagokionez, heldu da tokiko poliziaren funtzionamendua arautu behar duten oinarritzko alderdien zati bat dagoeneko araututa dagoelarik, dela erregelamendu bidez, dela Iruñeko Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako funtzionarioen eta administrazio-araubidean kontratatutako langileen akordio kolektiboan itundutako baldintzen bidez.

Ildo horretan, Iruñeko Udaltzaingoak bere antolaketa-egitura definitzen du Iruñeko Udaltzaingoaren Antolaketa eta Funtzionamenduaren Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, zeina 2017ko martxoaren 2ko osoko bilkuran onetsi eta 2017ko 65. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, apirilaren 3koan, argitaratu baitzen. Egoera bera aipatu behar da urteko lanaldiari, ordutegi-araubideari eta herrietako jaietan parte hartzeagatiko konpentsazioari dagokienez, Iruñeko Udaltzaingoaren kasuan akordio kolektiboan jasotakoak arautzen baititu.

Bestalde, 23/2018 Foru Legeak zuzeneko aplikazioa du beste gai batzuen funtzionamenduan, hala nola lanpostuak hautatzeko, hornitzeko eta horietara sartzeko sistema, eskubideak eta betebeharrak eta polizia-eginkizunetan aplikagarria den diziplina-araubidea.

Beste egoera batean dago, ordea, foru lege honetan arautzen den ordainsarien gaia. Ildo horretan, azpimarratu behar da 23/2018 Foru Legearen ondoren urriaren 25eko 227/2023 Foru Dekretuan jasotako erregelamendu bidezko garapena onetsi zela. Foruzaingoaren Lanaldi, Ordutegi eta Ordainsarien Erregelamendua onesten dituen foru dekretu horrek, Foruzaingoaren lanaldien eta txanden araubidea arautzeaz gain, Nafarroako poliziei ordain dakizkiekeen ordainsariak arautzen ditu lanpostuen balorazioari buruzko azterketa egin ondoren, soldata-osagarrietan eragina duten aldagaiak kontuan hartuta.

Testuinguru horretan, garrantzitsua da azpimarratzea Iruñeko Udaleko indarreko plantilla organikoan Iruñeko Udaltzaingoan ordaintzen diren ordainsari-kontzeptuak jasotzen badira ere, ez dagoela ordainsari horien betekizunak eta aplikazioak definitu eta arautzen dituen erregelamendu bidezko garapenik. Hala ere, 23/2018 Foru Legeak, 65. artikuluan, Nafarroako toki administrazioei ematen die agindu hori, xedatzen baitu beren polizien titular diren toki entitateek garatuko dituztela lege horretan jasotako ordainsari osagarriak.



Beharrezkoa da, beraz, Iruñeko Udaltzaingoak jaso beharreko ordainsariak tokiko araudi-mailan garatzea, are gehiago Iruñeko Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako funtzionarioen eta administrazio-araubidean kontratatutako langileen akordio kolektiboaren lehen xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera; izan ere, xedapen horretan Nafarroako Foruzaingoaren eta Iruñeko Udaltzaingoaren ordainsariak parekatzeko eskatzen da.

TITULU BAKARRA: ORDAINSARIAK.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua

Xedea.

Erregelamendu honen xedea da Iruñeko Udaltzaingoko langileen ordainsarien araubidea arautzea.

II. KAPITULUA

Ordainsariak

2. artikulua

Ordainsarien araubidea.

1. Iruñeko Udaltzaingoko langileei kontzeptu hauengatik bakarrik ordaintzen ahalko zaie:

A. Norberaren oinarritzko ordainsariak:

a) Oinarritzko soldata, mailari dagokiona.

b) Graduari dagokion ordainsaria.

c) Antzinasun saria.

Norberaren oinarritzko ordainsariak eskuratutako eskubidea dira, funtzionario izaerari datxekiona.

B. Ordainsari osagarriak:

a) Berariazko osagarria.

b) Lanpostuaren osagarria.

c) Prestasun bereziaren osagarria.

d) Burutzaren osagarria.

Ordainsari horiek norberak esleituak dituen lanpostuan jarduteari dagozkio eta, beraz, lanpostua uztearekin bat haiek jasotzeari ere uzten zaio.

C. Bestelako ordainsariak:

a) Zerbitzuagatik egiten diren gastuen kalte-ordaina. Berariaz jasoko du gida-txakurren taldeko langileek zerbitzua emateko erabiltzen dituzten txakurrak mantentzeagatik gastuen kalte-ordaina, aldez aurretik ordainketa justifikatuta.

b) Egindako bidaien kalte-ordaina.

c) Zerbitzurako jantziak erosteagatik ematen den kalte-ordaina, erregelamenduz ezartzen diren kopuruetan.

d) Bizilekua aldatzea dakarren nahitaezko lekualdatzeagatik ematen den kalte-ordaina.

e) Familia laguntza.

f) Aldi baterako osagarri pertsonala bigarren jarduerako egoera administratiboagatik, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan eta kopuruetan.

g) Konpentsazioa aparteko orduengatik, gauez nahiz jaiegunez, lanpostuan egin beharreko guardiengatik eta guardia lokalizatuengatik, hautapen epaimahaietan parte hartzeagatik, prestakuntza ikastaroak irakasteagatik eta sanferminetan zerbitzua emateagatik.

h) Konpentsazioa ordutegirako eskuragarritasunagatik.

i) Lanaldiaren luzapeneko osagarria.

2. Nafarroako Administrazio Publikoetako gainerako funtzionarioei oro har aplikatzen zaizkien arauak zuzenduko dituzte norberaren oinarritzko ordainsariak, Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legean aurreikusitako alderdi espezifikoei.

Gainerako ordainsariak Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legearen arabera arautuko dira, eta lege horretan berariaz aurreikusita ez dagoen guztian, Nafarroako Administrazio Publikoetako gainerako funtzionarioei oro har aplikatu beharreko arauen arabera.

3. artikulua

Berariazko osagarria.

1. Berariazko osagarria Nafarroako Udaltzaingoko langile guztiei ordainduko zaie; haren zenbatekoa izanen da mailari dagokion hasierako soldataren % 45, barnean sartuta bai polizia-batera ezintasuna (% 35) bai polizia-eginkizunak berezko duen arriskua (% 10).

2. Polizia-bateraezintasuneko osagarria jasotzen bada, debeku izanen da irabazizko jarduerarik egitea, sektore publikoan zein pribatuan, baldin eta kasuko jarduera horrek eragozten edo kaltetzen badu esleitutako betebeharrak betetzea, edo inpartzialtasun edo independentzia arriskuan jartzen baditu, betetzen den lanpostuaren mailarengatik bateraezina bada, edo oinarrizko jarduketa-printzipioen aurkakoa bada. Nolanahi ere, Giza Baliabideetako zuzendariaren alde aurreko baimena beharko da, Iruñeko Udaltzaingoko buruak txosten arrazoitua egin ondoren.

4. artikulua

Lanpostuaren osagarria.

1. Lanpostuaren osagarriak honako hauek ordainduko ditu: eskatzen den prestakuntza tekniko eta fisiko berezia, zailtasun-maila, lanpostuari dagokion ordutegi-araubidea, nekagarritasuna, txandakako lana, arrisku berezia, dedikazio berezia, malgutasuna eta erantzukizun berezia.

2. Lanpostuaren osagarriaren zenbatekoak ezin izanen du gainditu mailari dagokion hasierako soldataren % 75, eta zehaztuko da unitate organikoak Nafarroako Foruzaingoarekin parekatuz.

3. Iruñeko Udaltzaingoko unitateetan lanpostuaren osagarria zehazteko, Nafarroako Foruzaingoarekin lanpostuen balorazioari buruzko azterketa hartzen da erreferentziazat. Azterketa horrek bi polizia-kidegoetako unitateen arteko analogiak ezartzeko oinarriak ezartzen ditu, erregelamendu honen I. eranskinean jasota daudenak.

4. Iruñeko Udalean dagokion osagarriaren behin betiko zehaztapena egiten da Foruzaingoko unitate baliokideari esleitutako lanpostuaren osagarria erreferentziazat hartuta, dedikazioaren faktorearen ondoriozko desberdintasunengatik zuzenketa aplikatuz (hau da, urteko lanaldia eta ordutegi-malgutasuneko araubidea).

Zuzenketa hori osagarriaren urteko benetako orduko prezioa doituz egin da. Kalkulu horren ondorioz, erregelamendu honen II. eranskinean jasotzen diren lanpostuko osagarrien ehunekoak lortzen dira.

5. Udaltzaingoko unitateen txanden araubidean egin nahi diren aldaketak negoziazio mahaian negoziatu beharko dira, adostasuna bilatuz eta txanden zein malgutasunaren araubideek lanpostuaren osagarrian duten eragina kontuan harturik, erregelamendu honen III. eranskinean jasotakoaren arabera. Aldaketak ez du inola ere ekarriko lanpostuaren osagarria murritztea.

6. Agente lehenaren lanpostuak gutxienez % 8ko aldea izanen du, unitate beraren barruan, agentearen enpleguarekin.

5. artikulua

Prestasun bereziko osagarria.



1. Prestasun bereziko osagarria jasoko duten enplegu edo lanpostuak dira haien eginkizunengatik prestasun eta lokalizazio etengabea edo lanarekin bitarteko telematikoen bidez etengabe harremanetan egotea eskatzen dutenak.
2. Osagarri hori jasotzen dutenek erabateko prestasunez eta dedikazio osoz emanen dituzte beren zerbitzuak, eta ezin izanen dira irabazizko beste inolako jardueratan aritu, ez sektore publikoan ez pribatuan, salbu eta unibertsitateko irakaskuntzan, irakaskuntza zentroetako irakaskuntza esporadikoan eta norberaren edo familiaren ondarearen administrazioan.
3. Lanpostuan egin beharreko ordutegitik kanpo, etengabeko prestasuna eta lokalizazioa izateaz eta edozein bidetatik egiten zaizkion eskakizun guztiei erantzuteaz gain, zerbitzuko burutza dagokion astean lanpostura bertaratzeko prest egon beharko du, horretarako eskatzen zaionetik ordubeteko epean.
4. Horren zenbatekoa mailari dagokion hasierako soldataren % 20 izanen da.
5. Osagarri hori jasotzea bateraezina da aparteko orduak jasotzearekin eta guardia lokalizatuak egitearekin.
6. Nafarroako Udaltzaingoko kideen lanpostuek prestasun berezia esleitua badute, kide horiek ez dute gaindituko, urteko zenbaketan, akordio kolektiboan esleitutako ordu kopurua.
7. IV. eranskinean jasotzen dira prestasun bereziko osagarria aplikatuko zaien Iruñeko Udaltzaingoko enplegu eta unitateak.

Eranskin horren aldaketa negoziazio mahaian negoziatu beharko da, adostasuna bilatuz, eta Giza Baliabideetako zinegotzi ordezkariaren ebazpen bidez gauzatuko da, Udaltzaingoaren Burutzak dagokion jarraibidea eman ondoren. Prestasun bereziko osagarria plantilla organikoan berretsi beharko da.

6. artikulua

Burutzako osagarria.

1. Burutzako osagarria jasoko duten lanpostuak enplegu barruan aginte egoera berezia dutenak izanen dira, halaxe jasota baldin badago dagokion plantilla organikoan.
2. Osagarri horren zenbatekoa, mailari dagokion hasierako soldatari dagokionez, %10 izanen da.

7. artikulua

Aparteko orduen konpentsazioa.

1. Nafarroako Udaltzaingoko langileei beren lanalditik kanpo egin behar dituzten zerbitzuengatik bakarrik ordainduko zaie aparteko ordu gisa, baldin eta prestasun bereziko osagarria, guardia lokalizatuengatiko ordainsaria edo lanaldiaren luzapeneko osagarria jasotzen ez badute.

2. Aparteko orduak egiteko, eskudun den edo dagokion unitateko buruaren edo txandako buruaren baimen arrazoitua beharko da.

Urteko zenbaketako soberakinak, abenduaren 31 baino lehen konpentsatu ez direnak, aparteko ordu gisa ordainduko dira.

3. Prestakuntza-orduak ez dira aparteko ordutzat hartuko, ezta urteko zenbateko soberakintzat ere, eta denborarekin konpentsatuko dira planifikatutako urteko lanaldia handitzea dakartenak.

Kompentsazio hori lanaldi osoen arabera hartuko da, interesdunak hala eskatuta, kontuan hartu gabe zenbaketa urte naturala baino handiagoa izan ala ez. Orduka ere hartzen ahalko dira, egin beharreko lanaren ezaugarrien eta zerbitzuaren beharren arabera.

4. Sartzeko edo ateratzeko ordutegia edo biak aldatzeak lanaldia luzatzea badakar, aparteko orduak sortuko dira.

Ondorio horietarako, lanaldiaren luzapentzat hartuko da benetako lan-denbora, planifikatutako lanaldiaren iraupenaz gainekoa, etenik gabe egindakoa, lanaldiaren hasiera aurreratuz edo bukatzeko aurreikusitako ordua iritsi ondoren lanaldiari jarraipena emanez.

5. Zerbitzuaren beharrek ahalbidetzen dutenean, aparteko orduak atsedenaldiarekin konpentsatzen ahalko dira, interesdunak aldez aurretik eskatuta, eta hiru hilabeteko epean hartu beharko da konpentsazioa, aparteko orduak egin diren hilaren lehenengo egunetik hirugarren hilaren azken egunera arte. Zerbitzuaren beharregatik hiru hilabeteko epean konpentsazioa ukatu bada, hiru hilabetez luzatzen ahalko da konpentsazioa baliatzeko epea. Gehitutako hiru hilabeteak igarotzen badira konpentsazio hori egin gabe, sortutako aparteko orduak dirutan ordainduko dira.

6. Udaltzaingoko aparteko orduen prezioen zenbatekoa eta atsedeen gisako konpentsazioari dagokiona izanen dira Iruñeko Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileendako ekitaldi bakoitzean onesten direnak.

Era berean, urte eta langile bakoitzeko egin daitezkeen aparteko orduen kopuruaren mugari dagokionez eta muga hori gainditzen ahal den salbuespenezko kasuei (behar bezala justifikatuak) dagokienez, Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileendako ezarritakoa beteko da.

8. artikulua

Kompentsazioa, guardia lokalizatuengatik.

1. Guardia lokalizatuen araubideak Udaltzaingoko unitate jakin batzuetan etengabeko zerbitzu iraunkorra emateko beharrari erantzuten dio.

Giza Baliabideetako zinegotzi ordezkariaren ebazpen bidez zehaztu beharko da, Burutzak dagokion txostena eman eta negoziazio mahaian negoziatu ondoren, zer unitate edo zerbitzuri esleitzen zaizkien guardia lokalizatuak.



2. Guardia lokalizatua da Iruñeko Udaltzaingoko langileek kasuan kasuko lanpostutik kanpo egindako zerbitzua, baldin eta zerbitzu horretan langileak lokalizatuta eta destinatuta dagoen unitatearekin harremanetan egoteko betebeharra badu, edozein bidetatik egiten zaizkion errekerimendu guztiei erantzuteko eta zerbitzuan fisikoki hasteko moduan, eskatzen zaionetik ordubetera.

3. Guardia lokalizatuen araubidean lan egiten duten Iruñeko Udaltzaingoko langileek benetan egindako guardia-ordu bakoitzeko jasoko dituzte kontzeptu horrengatik Nafarroako Gobernuan ezarritako ordainsari ekonomikoak.

4. Guardia lokalizatuak egitea bateraezina izanen da aparteko orduak egiteagatiko beste osagarri batzuk jasotzearekin, gaueko ordutegian edo jaiegunetan.

5. Langilea guardia lokalizatu bat egiten ari den bitartean lanpostura bertaratzen bada, urteko lanaldiari txanda oso gisa egotziko zaio, edo, txanda hori gainditzeko denean, benetan egindako ordu kopuruari, eta egindako lan-txandari dagozkion ordainsariak jasoko dira.

6. Guardia lokalizatuak egutegian planifikatzen ahalko dira, eta txandaketa bat arautu beharko da, unitate bakoitzeko funtzionarioen artean orekatzeko.

9. artikulua

Konpentsazioa sanferminetan dispositibo berezietan parte hartzeagatik.

1. Apartatu honetan xedatutakoa aplikatuko zaie sanferminetako jaietarako, uztailaren 6tik 14ra bitarte, aurreikusten diren zerbitzuei.

2. Uztailaren 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13 eta 14a jaieguntzat hartuko dira ohiko lanaldi osoa edo ohikotik gorakoa egin behar duten langileen kasuan. Jaieguntzat hartuko da, halaber, uztailaren 5etik 6rako eta 14tik 15erako gauetako sanferminetako ordutegia duen lan-txanda.

3. Berriazko baldintzen araubide bat ezartzen da Udaltzaingoarendako, zerbitzua zaindariaren jaietan ematea bereziki nekagarria eta garrantzitsua delako. Berriazko baldintzen araubide hori aplikatzeko, Iruñeko Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako funtzionarioen eta administrazio-araubidean kontratatutako langileen akordio kolektiboan xedatutakoari jarraituko zaio.

10. artikulua

Izapide judizialekara joatea.

Iruñeko Udaltzaingoko langileek, beren jardun profesionalari lotutako izapide judizialekara lan-ordutegitik at joan behar badute, aparteko hiru lanorduren konpentsazioa jasoko dute, eta hasiera batean aurreikusitako hiru orduak gainditzeko dituzten bertaratzeak kontuan hartuko dira proportzionalki aplikatzeko.

III. KAPITULUA

Konpentsazioa ordutegirako eskuragarritasunagatik

11. artikulua

Konpentsazioa ordutegirako eskuragarritasunagatik.

1. Ordutegirako eskuragarritasunagatik konpentsazioaren helburua izanen da erakundeak ezarritako zerbitzu-beharren ondorioz ohiko lanalditik kanpo egindako orduak konpentsatzea, eta ordu horiek Udaltzaingoarean barruko aldi baterako langileek betetzea ezinezkoa denean ordainduko dira.

2. Konpentsazio hori honela ordainduko da:

a) 2.C.g artikuluan ezarritako ordainsari gisa jasotako aparteko orduen osagarri gisa.

b) 2.C.h artikuluan ezarritako "Ordu-poltsa" jasotako orduen konpentsazio gisa.

12. artikulua

Ordu-poltsa.

Polizia-zerbitzuak hobe kudeatzeko, "ordu-poltsa" bat eratzea aurreikusten da. Poltsa horretan langile guztiek izena ematen ahalko dute urtero eta borondatez. Poltsa hori urtero argitaratuko da, Burutzak aginduta, negoziazio mahaiari jakinarazi ondoren.

IV. KAPITULUA

Konpentsazioa proba fisikoak gaintzeagatik

13. artikulua

Konpentsazioa proba fisikoak gaintzeagatik.

Iruñeko Udaltzaingoko langileei agindutako eginkizunen izaerak eta horiek behar bezala gauzatzeak eskatzen dute kideek forma fisiko egokia izatea, eta prestakuntza hori diruz konpentsatuta eman behar da, hori egiaztatzen duten proba fisikoak gaintu ondoren.

14. artikulua

Proba fisikoak egiteko deialdia.

Bost urtean behin, proba fisikoak urteko azken hiruhilekoan egiteko deialdia egingen da, eta aparteko proba bat gaituko da deialdi nagusiaren hurrengo urteko martxoan, salbuespenezko eta justifikatutako arrazoiengatik proba horiek hasieran ezarritako egunetan egin ezin izan dituzten pertsonentzat. Iruñeko Udaltzaingoko langileek proba horiek egiten emandako denbora benetako lantzat hartuko da gerta daitezkeen lesioen edo istripuen ondorioetarako.

Oro har, jardunean edo eszedentzia berezian dauden funtzionarioei baino ez zaie deituko, baldin eta Iruñeko Udaltzaingoan sartu zirenetik inoiz proba fisikoak gainditu ez badituzte. Zerbitzu berezietako egoeran dauden Iruñeko Udaltzaingoko langileek, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdietako Eskolan mailaz igotzeko prestakuntza-ikastaro batean parte hartzen ari direnek izan ezik, ez dituzte probak egin beharko egoera horretan dauden bitartean, eta jardunera itzultzen direnean dagokien konpentsazioa izanen dute, zerbitzu berezietako egoerara igaro aurreko baldintza berberetan.

Nafarroako Segurtasun eta Larrialdietako Eskolan mailaz igotzeko prestakuntza-ikastaro batean parte hartzeagatik zerbitzu berezietako egoeran deklaratu direnek eskubidea izanen dute, egoera horrek irauten duen bitartean, deialdia egiten duen administrazio publikotik beren jatorrizko plazan aitortuta dituzten ordainsari osoak jasotzeko, proba fisikoak gainditzeagatik konpentsazioa barne.

Udaltzaingoan sartu zirenetik bost urte baino gehiago igaro eta borondatezko eszedentzia baten ondoren jarduneko zerbitzura itzultzen diren funtzionarioek ez dute konpentsaziorik izanen proba fisikoengatik, haiek gainditzen ez dituzten bitartean parte hartzen duten hurrengo deialdian.

15. artikulua

Proben garapena.

1. Probak egiteko ordutegiak polizia bakoitzak bere lanalditik kanpo egin ahal izateko moduan planteatuko dira, eta hori ezinezkoa denean lan-ordutegiaren barruan programatuko da, eta, lehen kasuan, probetara joatea lan egindako bi ordu gisa zenbatuko da.

2. Lan-istripuagatik, lanbide-gaixotasunagatik, haurdunaldiagatik edo amatasunagatik proba fisikoak egin ezin dituztenek proba fisikoak gainditzeari dagozkion orduak hartzeko eskubidea izanen dute, baldin eta aurkeztu ziren azken deialdian proba fisikoak gainditu badituzte, lan-istripuaren aurretik edo lanbide-gaixotasunagatik, haurdunaldiagatik edo amatasunagatik baja hasi aurretik.

16. artikulua

Proba fisikoen konpentsazio ekonomikoa.

Proba fisikoak gainditzen dituzten funtzionarioek mailari dagokion hasierako soldataren % 17 jasoko dute, eta osagarri hori finkatuta geratuko da, proba horiek berriro gainditu beharrik gabe.

Era berean, erregelamendu hau onetsi ondoren Iruñeko Udaltzaingoan sartzen diren funtzionarioek, edo polizian sartu zirenetik deituak izan ez direlako proba fisikoak gainditu ez dituztenek, hasieratik jasoko dute 100eko 17ko osagarria, eta probak behin bakarrik gainditu beharko dituzte egiten den hurrengo deialdian.



AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetako lehena. Akordio kolektiboarekiko integrazioa.

Udaltzaingoaren kolektiboari dagokionez, Iruñeko Udaltzaingoaren Ordainsarien Erregelamendu honetan araututako gaiak Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileen akordio kolektiboaren kasuan kasuko gai berari buruzko aurreikuspenen gainetik egonen dira.

Erregelamendu honetan berariaz arautzen ez denari dagokionez, akordio kolektiboan xedatutakoa aplikatuko da.

I. ERANSKINA: ANALOGIAK NAFARROAKO FORUZAINGOAREN ETA IRUÑEKO UDALTZAINGOAREN UNITATEEN ARTEAN, LANPOSTUAREN OSAGARRIAREN ONDORIOETARAKO SOILIK.

IRUÑEKO UDALTZAINGOA	FORUZAINGOA
IKUSKAPEN OROKORREKO TALDEA	KUDEAKETA ADMINISTRATIBOAREN ETA EKONOMIKOAREN TALDEA
LOGISTIKAKO TALDEA	BALIABIDEAK ADMINISTRATZEKO TALDEA
EKZko TALDEA	KOMUNIKAZIOKO ETA LOTURA OPERATIBOKO BRIGADA
HERRITARREN ARRETA KO ETA GIZA BALIABIDEETAKO TALDEA	GIZA BALIABIDEEN TALDEA
PRENTSAKO LANTALDEA-BIKTIMEN ARRETA BULEGOA	KOMUNIKAZIORAKO ETA PARTAIDETZARAKO TALDEA
BIDE PLANGINTZAKO TALDEA	TRAFIKOKO PLANIFIKAZIO OPERATIBOKO TALDEA
ELKARBIZITZAREN ALDEKO HEZKUNTZAKO TALDEA	BIDE HEZIKETAKO TALDEA
ATESTATU TALDEA	POLIZIA JUDIZIALAREN IPARRALDEKO TALDEA
ISTRIPUEN ANALISIKO LANTALDEA	POLIZIA JUDIZIALAREN IPARRALDEKO TALDEA
TRAFIKOKO TALDEA	BIDE SEGURTASUNeko TALDEA
GARABIEN LANTALDEA	KUDEAKETA ADMINISTRATIBOAREN ETA EKONOMIKOAREN TALDEA
HURBILEKO POLIZIAKO TALDEA	PREBENTZIORAKO ETA HERRITARREN ARRETARAKO DIBISIOA
JASANGARRITASUNERAKO LANTALDEA	PREBENTZIORAKO ETA HERRITARREN ARRETARAKO DIBISIOA
PREBENTZIOKO TALDEA	PREBENTZIORAKO ETA HERRITARREN ARRETARAKO DIBISIOA



LAGUNTZAKO LANTALDEA	PREBENTZIORAKO ETA HERRITARREN ARRETARAKO DIBISIOA
GIDA-TXAKURREN LANTALDEA	GIDA-TXAKURREN TALDEA
ERAKUNDEEN SEGURTASUNEN TALDEA	AGINTARIAK BABESTEKO BRIGADA
LAGUNTZA ZERBITZUETAKO TALDEA	BARNE SEGURTASUNEN TALDEA
POLIZIA ADMINISTRATIBOKO ETA INGURUMENEN TALDEA	KUDEAKETA ADMINISTRATIBOAREN ETA EKONOMIKOAREN TALDEA
HERRITARREN ARRETAKO ETA SALAKETETAKO BULEGOKO TALDEA	POLIZIA JUDIZIALAREN IPARRALDEKO TALDEA
INFORMAZIOA AZTERTZEKO LANTALDEA	POLIZIA JUDIZIALAREN IPARRALDEKO TALDEA
IKERKETAKO LANTALDEA	POLIZIA JUDIZIALAREN IPARRALDEKO TALDEA
EMAKUMEAK, ADINGABEAK ETA ADINEKOAK BABESTEKO TALDEA	LAGUNTZA BRIGADA
GENERO-INDARKERIAKO LANTALDEA	LAGUNTZA BRIGADA
KOMUNITATE POLIZIAKO TALDEA	PREBENTZIORAKO ETA HERRITARREN ARRETARAKO DIBISIOA

II. ERANSKINA: LANPOSTUAREN OSAGARRIA PAREKATZEKO TAULA

	Lanpostuare n osagarria (gaur egun)	Lanpostuare n osagarria (azkena)	
INSPEKTOREORDEA			
Erakundeen Segurtasuneko Taldea	60,41	40,41	% 20 prestasun bereziagatik
Ikerketa Taldea	41,41	37,02 (41,41)	
Emakumeak, Adingabeak eta Adinekoak Babesteko Taldea	41,41	37,02 (41,41)	
Herritarren Arreta Bulegoa / Informazioa Aztertze Lantaldea	41,41	35,52 (41,41)	
Komunitate Poliziako Taldea	25,05	34,13	
Prebentzioko Taldea	25,05	37,13	
Hurbileko Poliziako Taldea	25,05	37,13	
EKZko Taldea	25,05	32,25	
Bide Segurtasuneko Taldea	25,05	35,63	
Bide Plangintzako Taldea	25,05	30,20	
Atestatu Taldea / Istripuen Analisisiko Taldea	25,05	35,52	
Herritarren Arretako eta Giza Baliabideetako Taldea	25,05	31,57	
Elkarbizitzaren aldeko Hezkuntzako Taldea	25,05	30,71	
Polizia Administratiboko eta Ingurumeneko Taldea	25,05	26,08	
Logistikako Taldea	20,96	27,80	
Ikuskapen Orokorreko Taldea	20,96	26,08	
Laguntza Zerbitzuetako Taldea	18,5	22,31	
	Lanpostuare n osagarria (gaur egun)	Lanpostuare n osagarria (azkena)	
AGENTE LEHENA			
Erakundeen Segurtasuneko Taldea	67,45	47,45	% 20 prestasun bereziagatik
Ikerketa Taldea	47,34	43,84 (47,34)	
Emakumeak, Adingabeak eta Adinekoak Babesteko Taldea	47,34	43,84 (47,34)	
Genero-indarkeria eta Aniztasuna Kudeatzeko Lantaldea	47,34	43,84 (47,34)	

Herritarren Arretako eta Salaketetako Bulegoa	47,34	45,34 (47,34)	
Komunitate Poliziako Taldea	31,87	32,38	
Prebentzioko Taldea	31,87	35,38	
Laguntzako Lantaldea	31,87	35,38	
Gida-txakurren Lantaldea	31,87	40,63	% 20 prestasun bereziagatik
Hurbileko Poliziako Taldea	31,87	35,38	
Jasangarritasun Lantaldea	31,87	33,88	
Atestatu Taldea	31,87	45,34	
Isitripuen Analisisiko Lantaldea	31,87	42,34	
Bide Plangintzako Taldea	31,87	25,85 (31,87)	
Herritarren Arretako eta Giza Baliabideetako Taldea	31,87	28,63 (31,87)	
EKZko Taldea	31,87	33,50	
Elkarbizitzaren aldeko Hezkuntzako Taldea	31,87	30,69 (31,87)	
Bide Segurtasuneko Taldea	31,87	33,88	
Garabien Lantaldea	31,87	26,75 (31,87)	
Polizia Administratiboko Taldea	31,87	28,25 (31,87)	
Zitazio Judizialeko Lantaldea	27,61	26,75 (27,61)	
Logistikako Taldea	27,61	21,88 (27,61)	
Ikuskapen Orokorreko Taldea	27,61	26,75 (27,61)	
Laguntza Zerbitzuetako Taldea	27,61	24,88 (27,61)	
	Lanpostuare n osagarria (gaur egun)	Lanpostuare n osagarria (azkena)	
AGENTEA			
Erakunde Segurtasuneko Taldea	60,13	40,13	% 20 prestasun bereziagatik
Ikerketa Taldea	34,56	32,93 (34,56)	
Emakumeak, Adingabeak eta Adinekoak Babesteko Taldea	34,56	32,93 (34,56)	
Genero-indarkeria eta Aniztasuna Kudeatzeko Lantaldea	34,56	32,93 (34,56)	
Herritarren Arretako eta Salaketetako Bulegoa	34,56	34,43 (34,56)	
Informazioa Aztertzeko Lantaldea	34,56	32,93 (34,56)	
Komunitate Poliziako Taldea	19,09	24,36	
Hurbileko Poliziako Taldea	19,09	25,86	
Jasangarritasunerako Lantaldea	19,09	25,86	
Prebentzioko Taldea	19,09	27,36	

Laguntzako Lantaldea	19,09	27,36	
Gida-txakurren Lantaldea	19,09	32,63	% 20 prestasun bereziagatik
Atestatu Taldea	19,09	34,43	
Istripuen Analisisiko Lantaldea	19,09	31,43	
Herritarren Arretako eta Giza Baliabideetako Taldea	19,09	19,09	
Biktimen Arreta Bulegoa	19,09	23,34	% 20 prestasun bereziagatik
EKZko Taldea	19,09	25,50	
Bide Plangintzako Taldea	19,09	18,75 (19,09)	
Elkarbizitzaren aldeko Hezkuntzako Taldea	19,09	20,77	
Bide Segurtasuneko Taldea	19,09	25,88	
Garabien Lantaldea	19,09	17,16 (19,09)	
Polizia Administratiboko Taldea	19,09	18,75 (19,09)	
Zitazio Judizialeko Lantaldea	14,83	17,16	
Logistikako Taldea	14,83	13,88 (14,83)	
Ikuskapen Orokorreko Taldea	14,83	17,16	
Laguntza Zerbitzuetako Taldea	14,84	16,82	
	Lanpostuare n osagarria (gaur egun)	Lanpostuare n osagarria (azkena)	
Komisario nagusia	61,22	49,76	% 20 prestasun bereziagatik
Komisarioa	51,22	48,04	% 20 prestasun bereziagatik
Brigadako inspektorea	65,77	37,06 (45,77)	% 20 prestasun bereziagatik
Txandako Inspektore Burua	65,77	40,06 (45,77)	% 20 prestasun bereziagatik

Foruzaingoarekin parekatzeko eredu berrirako trantsizioan aldi iragankor bat ezarriko da. Aldi horretan, lanpostuaren osagarria Udaltzaingoaren unitatean Foruzaingoaren antzeko unitatean baino handiagoa zen kasuetan, titulartasuna duten edo plaza horiei behin-behinean atxikita dauden funtzionarioek oraingo lanpostuaren osagarriari eutsiko diote, eta plaza automatikoki igaroko da osagarri berrira hutsik geratzen den unean.

III. ERANSKINA: "DEDIKAZIOA" FAKTOREAK LANPOSTUAREN OSAGARRIAN DUEN ERAGINA.

- Ordutegi-araubidea – % 3ko eragina lanpostuaren osagarrian.
 - o Txanda bakarrean lan egiten bada: % 0.
 - o Goizeko, arratsaldeko eta jaiegunetako txandetan lan egiten bada:
 - Urteko % 33tik beherako aldizkakotasunarekin: % 0,38.
 - Urteko % 33ko edo gehiagoko aldizkakotasunarekin: % 1,5.
 - o Goizeko, arratsaldeko, gaueko eta jaiegunetako txandetan lan egiten bada:
 - Urteko % 33tik beherako aldizkakotasunarekin: % 0,75.
 - Urteko % 33ko edo gehiagoko aldizkakotasunarekin: % 3.
- Lanaldiaren malgutasuna – % 6ko eragina lanpostuaren osagarrian.
 - o Unitatean lanaldia luzatzen ahal bada zerbitzuaren beharrengatik edo jaiegunetan txanda bakarrean lan egiten ahal bada: % 1,5.
 - o Unitatean aldaketak aplikatzen ahal badira ezarritako koadrantean, sartzeko eta/edo irteteko ordutegietan edo guardia lokalizatueta: % 3,75.
 - o Unitatean erabateko prestasuna beharrezkoa bada eta edozein ordutegi-aldaketa egiten ahal bada aldez aurretik planifikatu gabe: % 6.



IV. ERANSKINA: EGINKIZUN ESPEZIFIKOAK DITUZTEN UDALTZAINGOKO ENPLEGU ETA UNITATEAK,
PRESTASUN BEREZIKO OSAGARRIA APLIKATUKO ZAIENAK

- Enpleguak: Komisario nagusia, komisarioa eta inspektorea.

- Unitateak:

- Gida-txakurren taldea.

- Prentsako eta Biktimen Arreta Bulegoko Taldea.

- Erakunde Segurtasuneko Taldea.